

Baserritik otarrera, talde txikien bidez eragin

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



Antigua Otarrak

Bilgunea: Antiguotarrak elkarte
(Donostia, Matia kalea 31).

Sorrera urtea: 2010.

Otar kopurua: 30 gehienez.

Taldea hornitzen duten ekoizleak:

6 (barazkiak, arrautzak, oilaskoa, haragia, ogia...).



ANTIGUA OTARRAK

BARAZKI MORDOA jaten dute Idurre Zugazagasti eta Haritz Ugarte anti-guatarrek, garaian garaikoa eta berta-koa. Ez dute ordea supermerkatuan erosten. Astearte arratsaldero Anti-guotarrak elkartetik igaro eta orotari-ko elikagaiez hornitutako otarra izaten dute zain. Izan ere, biak ala biak jada bost urteko ibilbidea egin duen Antigua Otarrak kontsumo talde autogestionatuko kide dira.

Kontsumo taldeak 30 otar bete-tzen ditu astero, eta bakoitzak nor-banako, bikote, lagun-talde edo familia bana du jabe. Horretarako, ekoizle txikiekin soilik eta banan-bana egin dute harremana, asanblada bidez eta hainbat irizpide jarraituz aukeratu ostean. Bertakotasuna eta nekazaritza ekologikoan aritzea da batez ere aintzat hartzen dutena.

Ekoizleek elikagaiak elkartera eramaten dituzte, batere bitartekari-rik gabe, eta kontsumo taldeko kideek hartzen dute elikagaiak banatzeko ardura. Horretarako, astearte-ro bi kidek egin behar izaten dute banaketa lana: elikagaiak hartu eta otar bakoitzean dagokiona jarri. Zugazagastiren hitzetan: “Urtean hiru edo lau aldiz soilik egokitzen zaigu lan hori, eta trukean, tokian

30 otarren langa ez gainditzea erabaki dute, kontsumo taldea ondo kudeatu ahal izateko: “Hobe da talde txiki asko izatea, handi bakarra baino”.

tokiko produktu ekologikoak jasotzen ditugu astero”.

Otarra itxia da, eta hortaz, urte osoan eskatuko dutena aurretik planifikatzen dute. “Badakigu noiz jasoko ditugun arrautzak, noiz gazta edo noiz tomateak”. Horri esker, ekoizleek euren lana antolatu eta egonkortzeko aukera dute. Gainera, hilabeteko aurrerapenarekin ordaintzen diete baserritarrei, eta inoiz uzta hondatuko balitz ere, berdin ordaintzeko konpromisoa hartua dute. “Zorionez, oraingoz ez zaigu halakorik gertatu”.

Auzoko eragile aktibo

Diotenez, ekonomikoki ez dute ahalegin berezirik egin behar izan, hilerio ordaintzen duten kuotak ez baitu supermerkatuan erosiz gero xahutuko luketena gainditzen. Ugarteren arabera “egin beharreko moldaketa bakarra garaian garaiko produktua jatera ohitzea da”.

Kontsumo taldeko kide gisa parte hartzera bultzatu dituzten motibazioak asko dira: bertako ekoizle txikiei laguntzea, beste kontsumo

eredu bat sustatzea, produktu osasuntsuak eskuratzea... Kide bakoitzak bere lehentasunak ditu, baina bi hilabete behin egiten dituzten asanbladen bidez eta erabakiak denen artean hartuta, proiektu komun bat eratzea lortu dute.

Horrez gain, auzoko eragile aktibo bat gehiago dira. Jaietako egitarauaren baitan ekintzak antolatzen dituzte urtero, eta erosi dute igaro berri den Korrikaren kilometro bat ere. Lekukoa eramateko haien otarrak betetzen dituen ekoizleetako bat gonbidatu dute gainera.

Halako ekimenei esker Antiguango gero eta ezagunagoak direla nabari dute. Orain arte bezala modu horizontalean jarduten jarraitzeko 30 otarren langa ez gainditzea erabaki dute ordea, eta taldera batu nahi duen jende asko dagoen arren, itxaron-zerrendan izena eman behar izaten dute. “Ondo kudeatu ahal izateko hobe da kontsumo talde txiki asko izatea, handi bakarra baino. Auzoan bertan bada beste talde berriago bat, eta ea laster gehiago ere sortzen diren”. ■